



JON KORTAZAR

Madame Bovary'ri buruzko lehen berriak batxilergoko testu liburu batean izan nituen. Gure batxilergo garaian bazen munduko literatura erakusteko baliagarria gertatu zitzaigun irakasgai bat; gaur egun, egon badago, baina hautazkoa da. Gaurkoa bezalako zen, India zaharreko literaturarekin hasten zen: 'Ramayana' eta 'Majabhārata' ziren ikasi beharreko lehen lanak, eta azken horren 220.000 bertsok aho bete hortz uzten gintuzten.

Literatura unibertsaleko esku-liburu hartan zegoen 'Madame Bovary'. Bai, 'Madame Bovary', eta ez horrenbeste Gustave Flaubert. Hura ere egongo zen, zalan-tzarik gabe, baina gure arteko argienek esaten zuten nobelak – deabru sotila balitz bezala – jan zuela egilearen izaera eta itzalik gabe utzi zuela. Ez al zuen egin deabruak Axularrekin joko hori? Bada, gauza bera Gustave Flaubertekin. Zer jakingo ote genuen garai hartan Bovaryren joan-etorriez? Haren adulterioaz? Ezer gutxi, gure arteko argienek ere ez zuten susmatu ere egiten kontu hura.

Errealismoaren maisua

Unibertsitatean ere aipatu ziguten 'Madame Bovary'. Baina jada ez zen argumentu ilun eta urrun bat. Ordu horretan teknika literario errealisten eta kontakizunaren gain-ikurra genuen. Estrukturalistak ikasten genituen, eta, haien ustetan, Flauberten nobela kontakizun tekniken ere-

Garai tristeen isla

Literatura. 'Madame Bovary', emakumearen irudiaren bidez gizarte kritika egin zuen nobela

durik ederrena zen. Adibidez, aipatu behar bazuten iraupenaren «neurria» zer zen –eta berez teknizismoa zen hori guztia–, kontaktzen den denboraren iraupenaren eta kontaktzen erabiltzen den hitz kopuruaren arteko harremanean, bada, Flauberten teknika ekartzen zuten orduan testuetara. Horren adibide klasikotzat jotzen zuten Bovaryk eta Leonek Rouenetik egiten duten lando-bidaia, non, zuzen esan gabe, ia ezer esan gabe, azaltzen den bien arteko sexu harreman. Patxi Apalategi itzultzailearen hitzetan esateko: «–Jauna nora doa? –galdetu zuen kotxeroak. // –Nahi duzun lekura! –esan zuen Leonek Emmari kotxe barrura bultza eginez. // Eta makina astuna ibiltzen hasi zen. // Rue Grand-Pont jaitsi zuen, Place des Arts, Quai Napoleon, Pont Neuf zeharkatu zituen eta planto geratu zen Pierre Corneilleren estatuen aurrean. // –Segi! –esan zuen barnetik irten zen ahots batek».

Kapitulu horren ordu bakarra bost orrialde zabaletan kontaktatu zuen Flaubertek eta horixe omen zen iraupenaren neurria, denbora teknika horren «metroa»..., beste nobela guztietan erabiltzen den iraupena neurtzeko «metroa».

Kontua da Flauberten argitaratzaileak, 'La Revue de Paris' aldizkariko zuzendariak hauxe ida-tzi ziola 1856ko azaroaren 19an: «Ez da txantxa moduan hartu behar. Zure Landoko eszena hori 'ezinezkoa' da, ez guretzako, berdina zaigu eta, ez [arduradun gisa] zenbakia sinatzen dudana nire-tzako ere, baina bai poliziarentzako: kondenatuko gaituzte tai gabe».

Beste aldetik, nobelaren hasiera kontalari lekukoaren goi mailako eredu gisa aurkeztu ziguten. Honela irakur dezakegu euskaraz: «Estudioan ginen Zuzendaria sartu zenean, bere atzetik kalezantzia berri bat zuela eta klase-zaindaria bat pupitre handi bat zeramala. Lo zeudenak esnatu egin ziren, eta bakoitza bere la-

nean harrapatu balute bezala zutitu zen». Atal horretan kontalaria 'ikasleen artean' dago, eta handik ikusten du ikasle berria ikasgelan 'sartzen', eta ikuspegi horrek kontalari orojakilearen porrota ekarri zuen berarekin.

Literatur lan baten sorreranean sufrimendua

Baina Flaubert idazlea maitatzen, Herbert Lottmanen 'Gustave Flaubert' biografia irakurri nuenean ikasi nuen. Obra horretan ikusi nuen zer den egile bantentzat literatur lan baten sorreranean sufrimendua.

Nobelaren hasiera kontalari lekukoaren goi mailako eredu gisa aurkeztu ziguten

1851ko irailaren 20an horrelaxe idatzi zion Flaubertek maitale zuen Louise Colet-i: «Atzo gauaz hasi nintzen nire nobela idazten. Oraintxe bertan, izutzen nauten zailtasun estilistiko batzuk sumatzen ditut. Ez da erraza sotila izatea».

Egilearen gutuneriak, Louis Coleten idazkiek, Flaubertek adiskideei idatzitako gutunek, eta haiek berriz igorritakoek, artxibategietan aurkitutako dokumentuek amaraun konplexua osatzen dute Lottmanen biografian. Egiazki, nobelaren sormenaren prozesua kontatu du biografoak, eta 'kontatu' diot oso kontuan duelako beti kontakizuna bere idazkeran.

Herbert Lottmanek detaileak maite ditu, adibidez, 'Madame Bovary'ren luzera kontaktzen duenean, eta, bide batez, nobelagilearen lan modua azaltzen duenean: «Eskemen segida luze bat dago, gero 1.800 orrialdeko lehen aldakia, aurretik eta atzetik idatzia (zirriborroa alde batetik idatzi zuen, eta gero hura zuzendu, eta atzeko aldetik idatzi zuen berriro lana), ondoren, [adiskide zuten] Bouilhet-i kontsulta egin ondoren, behin betiko eskuizkribua sortu zuen, eta hori ere, gogotsu zuzendu zuen. [...] Flaubertek inprentarako kopia garbia egin behar zuen kopistari zuzendu zion behin betiko eskuizkribuak 470 folio zituen».

Aitortu behar dut horrelako xehetasunak gustuko ditudala. Baina egilearen drama detaileetan baldin badago ere, 'Madame Bovary' nobelaren sormenaren lana beste toki batzuetan aurkitu dezakegu: Flaubertek Louise Coletekin duen harreman gatazkatsuan, beste idazleekin duen lotura sarean (Flaubert ez zen inoiz isolatua bizi izan), bere buruaren aurka duen borrokan, Pariseko deiak eta landa etxeko zantzuak sortzen duten joan-etorri garratz eta kontraesankorreak.

«Moralaren aurkako» nobela

Eta, gainera, salaketa eta epaiketaren kasua dago. Nobela «moralaren aurkako» omen zen. Eta aferak ospea eta salmenta izugarria eman zizkion egileari. Baina ezinegonean bizi zen: «Ez dut justiziarik espero. Kartzelaratuko naute». Epaiketan libre utzi zuten Flaubert. Epaileen ustez, nobela bere osotasunean ez zen ohitura garbien kontrakoa, zenbait pasarte txiki bai, ostera. Eta errugabe aitortu zuten egilea.

Tribunalak, baina, ez zuen ikusi nobela egilearen asmo sakonen isla zela. Frantziako burgesiaren izaera ustelaren isla. Napoleon III.a Estatu buru bihurtu zen egunean, hauxe idatzi zuen Flaubertek: «Garai triste bat has-tekoak gara Frantzia». 'Madame Bovary' garai triste horien isla da.